

Aiker!

txorierriko aldizkaria

Derioko San Isidro eta
Zamudioko Pazko jaiak,

Festa hasi da Txorierrin

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkartearen
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili,
Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47

e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando
Larrondo, Jose Angel Mentxaka,
Alberto Legarreta, Gaizka Eguskiza,
Mari Tere Onaindia, Amagoia
Guezuraga, Belen Gana, Pospolin eta
Aritz ta Nagel.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Juanxu Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier
Oruetxebarria, Oihana Astobietta,
Maripi Agirre, Joseba Gotzon, Lurdes
Prudencio, Bestorrene, Agote, Atotz
Goikoetxea, Bizkaiko Dantzarien
Biltzarra, Juan Luis Goikoetxea, Ines
Serrano eta Goizeder Uriia.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka
Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-
9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritza



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Saria

diruz lagundutako aldizkaria



14 Musikan hasi berriak



26 Larrabetzuko Gure Etxea Elakrtea



22 Bizkaiko Dantzari Eguna



21 Larrabetzuko azoka



12 Rakel Pujana

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak 11Gurean izan da...
Rakel Pujana 12Gazteen txokoa 14Musikan hasi berriak
16Derioko jaiak 21Larrabetzuko azoka
22Bizkaiko Dantzari Eguna 24Zamudioko jaiak
26Larrabetzuko Gure Etxea Elkartea 28Osasuna
29Teknologia 30Txorierrri ezagutu 31Musika
32Sukaldaritza 33Denborapasa 34Agenda

Ni ez naiz Erroman egon, ezta ETBn ere



JOSEBA GOTZON
(Kantautorea)

Aspaldi honetan, Aita Santuaren heriotzari buruzko berri bonbardaketa handia sufritu dugu munduko komunikabide guztietan; Euskal Herrikoetan ere bai. Inoiz ez naiz Aita Santuaren zalea izan, boterea ez baita nire gustukoa; ez mota batekoa, ez bestekoa. Baina zalea ez izan arren, Vatikanoko eta Elizaren berriak interesatzen zaizkit, ez

alferrik, gure gizartean izugarriko indarra baitaukate eta bere erabakiek eta pentsaerek gure bizitzan eragina handia dutelako: abortua, eutanasia, sexua, heziketa, eta abar. Aita Santua gerla eta pobrezia aurka edo bakearen eta giza-eskubideen defendatzaile moduan aurkeztu dute botere politikoko zuzendutako komunikabide gehienetan, eta kapitalismoaren aurka ere kokatu dute. Bi hamarkada luze hauetan zehar gizakiaren arazoak konpontzen saiatzeko asmoz bidaia pilo bat egin du, baina sarritan neure buruari galdetzen diot zenbat arazo konpondu duen, zenbat gerra gelditzea lortu duen, zenbat pobrezia amaitu duen... Eta, tamalez, ez dut gogoratzen inolako konponbiderik. Guztiz kontrakoa: zenbat diru kostatu zaizkie estatu pobreei bere bidaiak? Diru kopuru kontaezina, ziur asko! Are gehiago, berak zabaldu ditako mezuak nori zuzendu dizkio? Gobernuari, kristauei, apaizei, bankeroei, aberatsei...? Zein gobernuri interesatzen zaizkion munduko gerlak, pobrezia edo giza-eskubideak? Hori bai, Erroman denak egon dira: komunistak, sozialistak, kapitalistak, borrokoak... antzezlan bat bailitza. Aita Santua hil da ohorez, izar handi bat bezala baina ezer lortzeko: umeek gosez hiltzen jarraitzen dute (hiltzen dituzte), emakume asko eskubiderik gabe, torturak jarraitzen du, bakea gero eta urrunago, gerla basatiak airetik... eta abar luze bat. Baina Vatikanoko ez du betetzen esaten duena: "Zabal itzazue zuen etxeko ateak teilatu gabekoei". Zenbat ate zabaldu dute Vatikanok edo elizek? Non dago Vatikanok daukan altxorra? Zergatik baztertzen ditu Askapenaren Teologiaren inguruan dauden apaizak? Zenbat etxe dauka Elizak erabili gabe? Munduari bere mezuak betetzeko eskatu baino lehen, Vatikanok berak bete beharko lituzke, bestela botere politikoa bat besterik ez da izango.

Beste alde batetik, amaitu berriak ditugu hauteskundeak eta ETBn —gure telebista publikoan— lau aukera baino ez dizkigute aurkeztu. Bertan egindako hiru mahai inguruak aspergarriak eta antzekoak izan dira. Laukote horrek berdintasunaz eta ahots guztiei entzuteaz mintzatu dira, baina ahots guztiok haiek isilarazi dituzte. Lege atzeritarrak, ETB eta euskal boterea ados jarri dira. Beraz, ideia zabalak eta aukera guztiak errespetatzen ditugunok proposamen guztiak konparatzeko aukerarik ez dugu izan. Zein izen jar dakioke horri?

Militantzia



LURDES PRUDENCIO
(Zorriketan Euskara Alkarteko koordinatzailea)

Mendigoizaleek noizbehinka geldionetxo egiten dute, inguruneaz gozatzeko, atzera bueltatuz egin den ibilbidea neurtzeko eta begiak gora altxatuz tontorrerako falta dena jakiteko. Euskaltzaleok ere sarritan egiten dugu keinu tekniko hori euskararen normalizazio tontorrerako bide latz eta luzean.

Hauteskunde garaia aproposak izan ohi dira bizitzako arlo guztien artean euskararen egoera ere ebaluatzeko. Eta atzerantz begiratuz, zelangoa da egin dugun ibilbidea azken hiru-lau urteotan?

Makrotik hasita, bukatu berria den txosten kritikoa eta eraikitzaile baten bidez, ondorio nagusi bezala euskararen normalizazioan aurrerapauso garrantzitsurik eman ez izana salatu du Kontseiluak. Eta depresio larrian murgildu gura ez badugu, ez gara sartuko Nafarroan ("ley del vascuence") eta Iparraldean (ofizialtasuna) zer gertatzen den aztertzeraz.

Eta, gainera, azken aldiko "euskal" guztiaren rafiaren ondorioz euskaltzaleak atxilotzen badituzte (gure bazkide Alaitzen kasua, besteak beste) edo kaletik gabiltzanok "sospetxosoak" edo "ilegalak" baldin bagara, nor joango da mendira?

Mesotik jarraituz, Txorrierrin egin, egin ditugu metro batzuk (ez bakarrik Korrikaren alde). Baina, bide onetik? Behar den beste? Zer gertatzen da? Bailararen mutur batean ez al dago euskaltzalerik? Eta beste muturrean? Bakoitzak bide bat hartzen du tontorrera joateko? Ez dugu komunikaziorik? Eta nondik eta zertan dabil Euskararen Bizi Berritze Plana? Eta Txorrierriko Euskararen Aholkularitza Batzorde txit gorena?

Mikroa etorritz, pasatu da urte bete Mikel Zarateren omenalditik hona. Han egin ziren lana eta ahaleginek fruiturik izan dute Lezaman euskararen erabileran?

Txorrierritarrok gailurrari so gaude. Argi dugu eguneroko lana eta urratsak direla sistema bakarra bidean gora egiteko, motxila euskararen militantziaz beterik. Gure Inurrategi, Oiarzabal eta abarrek ondotoxoa dakite gailurra nor bere buruaz bakarrik nekez lortu daitekeela. Noiz elkar besarkatuko dugu euskaren gailurrean?

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikork!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Korrika-14, eskerrik asko

Balantzea egiteko ordua da Orreagan hasi eta Bilbon amaitutako korrika-14. edizioari eta txorierritarrok nota altuarekin baloratzten dugu aurtengo ekitaldia.

Korrikak Txorierrri lur eremua kontuan hartzen du. Leioako Txorierrri gunean hasi, eta Arriaga eta Erandioko Landatik Larrabaturaino herriz herri, auzoz auzo, 32 kilometro erosi edo ordaindu zuten hainbat lantegi, herrietako kultur elkarte, kirol talde, ikastetxe, dendari elkarte eta lagun taldek, baita Mankomunitateak ere. Batzuk betikoak dira, beste batzuk berriak; batzuk aurrekoan bai, baina oraingoan gauzak ez daudela ondo diru mailan eta kolaborazio txikiagoa eman dute, baina gogotsu euskarari laguntzeko. Banaka lantegiak, edo banan-banan eskoletako gurasoek, elkarte batzuetako partaideek edo lagun koadrilek, baita akordio baten ondorioz ere. Horrela erosi dira kilometroak.

Bestelako laguntza, korrika laguntzaile kanpainaz jasotzen dugu herrietako denda, taberna, elkarte eta lantegietatik. Badago Kuestazio kanpaina eta material salmenta ere.

Kultur ekitaldien leherketa izan dugu, ume, gazte zein nagusiagoentzat. Hasi Korrika aurkezpenagaz Hori Bai gaztetxean eta herriz herri ekitaldi ezberdinak antolatu dira: pailazoak, malabare tailerrak eskolatan, Karitateko Benta taldearen kontzertua, bertso eta trikiariak, triki poteoak, pilota partidak, fanfarreak, perkusio banda, umeentzako tailerrak, bazkari edo afariak...

Hori guzti hori antolatzeko ezinbesteko-



ak dira herriz herri dauzkagun korrika batzordeko partaideak. Hiru hilabete lehenago Txorierrriko zazpi herrietako batzordeak martxan jarri eta herriko lanak planifikatu eta banatzen dituzte. Haiak dira benetako motorrak.

Aurten Txorierrin inoizko partehartzerik handiena izan dugu, herri guztietan jai

giro ederra korrika karreran eta albotik animatzen egon direnak kolore eta animuak transmitituz korrikalariei eta euskarari. Laguntzaile, kolaboratzaile eta animatzaile guztioi ESKERRIK ASKO eta jarraitu euskaraz biziz.

Txorierrriko AEK



18 etxebizitza sozial eraiki dira Larrabetzun

Larrabetzuko 18 lagunek pisu berria estreinatuko dute maiatzean, izan ere, babes ofizialeko etxebizitzak eraiki dira urian, Udalak bultzatuta. Eraikitze lanak 2003. urtean hasi eta pasa den martxoan bukatu dituzte.

Pisuok Gorbeia eta Aita Patxi Ugalde kaleetan egin dira, eta horietako bat elbarrituentzat egokitu da. Horrezaz gainera, Aita Patxi Ugalde kalea oinezkoentzat egin eta parke bat jarri da bertan.

Etxebizitzak 80tik 86 metro koadrora bitartekoak dira, eta bakoitzak egongela, sukaldea, bi edo hiru logela, komun bi, hiri-gasa, trastelekua eta garajea ditu, besteak beste. Orotara, 3.099,74 metro koadro

urbanizatu dira eta 2.381.117 euro inbertitu dituzte proiektuan.

“Oso proiektu garrantzitsua da Larrabetzurako”, azaldu dio Tomas Ordeñana alkateak Aikor! aldizkariari, “Herrian 1.666 biztanle gara eta legeak ez gaitu etxebizitza sozialak eraikitzen behartzen. Hala ere, badakigu etxebizitzarena gure gazteen beharrezko bat dela eta arazo horri konponbidea eman nahi izan diogu”. Horrela, bada, 76 eskaera onartu zituen Larrabetzuko Udalak. Eskatzaile gehienak gazteak ziren. “Interes handia ikusi dugu herritarren aldetik eta babes ofizialeko etxebizitza gehiago egiteko asmoa daukagu etorkizunean”, esan digu Ordeñanak.

Monica Vicente derioztarrak irabazi du Dolores Ibarruri Lehiaketa

Derioko Monica Vicentek irabazi du Dolores Ibarruri Kontakizun Laburren Lehiaketa, euskarazko kategorian. Lehiaketa hau Abantoko Udalak antolatzen du. “Lehenengo aldia izan da era honetako txapelketa batean parte hartzen dudana, eta oso esperientzia positiboa izan da. Alde batetik, ideia bat garatzeko desafioa nuen eta, bestetik, sarien motibazioa”, esan dio neskek AIKOR! aldizkariari.

Sexuen arteko berdintasunari buruzko gaia jorratu behar zuten lehiakideek, eta *Atzoko oroigarriak*, *gaurko lorpenak* lana aurkeztu zuen Monicak. Gizonen munduan murgiltzen den emakume baten bizitza islatu du bertan. “Gure ekonomian burdinak eta mehatzek izandako eraginean oinarrituta, saiatu naiz azaltzen nolakoa izan zitekeen garai hartako emakume batek bizitako egoera. Halaber, bere eskubideak eta ametsak lortzeko egindako ahalegina islatu nahi izan dut”.

Pozik agertu zaigu Deriokoa lortutako sariarekin, “Edozein lehiaketatan parte hartzen duzunean sariren bat izateko ilusioa izaten duzu beti, baina inondik ere ez nuen uste lortuko nuela”.

San Isidro egunaren ospakizunak Lezaman

Maiatzaren 15ean, San Isidro eguna izango da, eta Lezamako kooperatibak hainbat ekitaldi antolatu ditu baserritarren jaia ospatzeko. Goizean meza izango da Lezamako elizan, eta eguerdiko ordu batean idi probak kooperatibako instalazioetan. Lezamako Eulogio Zarate eta Benito Etxebarriaren idiek eta Zamudioko Jose Angel Bilbaoren idiek hartuko dute parte bertan. Ostean, bazkaria egingo dute.

Loiuko udal ordezkariak Tindufeko kanpamentuetan izan da



Fronte Polisarioaren Euskal Herriko delegazioak antolatuta, martxoaren 19tik 26ra bitartean bidaia instituzionala egin zen Tindufen errefuxiatu sahararren kanpamentuak ezagutzeko. Bertan izan ziren, besteak beste, Iruñe Dañobeitia Loiuko alkateordea, Etor Irazola kultura zinegotzia eta Ana Landa kultura teknikaria. Bidaiaren helburua zen errefuxiatuekiko harremana estutzea eta haien euren premiak ezagutzea.

Loiutik joandako ordezkariak Bucraa bisitatu zuten, herri horrekin senidetuta baitago 1999tik. Kultura teknikaria Bucraan egon den hirugarren aldia izan da aurtengoa, eta hobekuntza txiki batzuk sumatu dituela aipatu dio AIKOR! aldizkariari: “Eskola berri dute eta etxe gehiengotan hozkailua dago”. Biztanleen beharriak bertan ezagutzeko aukera izan zuten, “Berangoko Eroskik emandako hainbat material eraman genuen: umetxoentzako arropa, biberoiak, txupeteak, eskolako materiala... Harrigarria da, oso baliabide eskasak eduki arren, zein pozik bizi diren ikustea. Oso eskuzabalak dira, solidarioak, maitekorrak...”.

Beste alde batetik, Aainuneko probin-

tziaiko gobernadorearekin izan ziren Loiuko ordezkariak eta Tindufera joandako Euskal Herriko beste udal delegazioak. Bileran, besteak beste, Saharako egoera politikoa eta Aainunean jorrazten dituzten proiektuak izan zituzten hizpide. Proiektuon artean azpimarratzekoak dira emakumeentzako zentroa, gazteei zuzendutako nekazaritza ikastaroak, elbarri-tuentzako tailerrak eta uren kanalizazioa.

Laguntza bidaltzeko kanpaina

Aainuneko ospitalea, Olof Palme emakumeentzako eskola eta Torreveija itsuentzako zentroa ere bisitatu zituzten. “Hainbat gauza behar dituzte: josteko makinak, orratzak, hariak, sendagaiak, medikuntza-tresneria... Umeak baraurik joaten dira Torreveija ikastetxera, eta bertako langileek ez dute baliabiderik izaten zentroan dauden bitartean jaten emateko”. Zentroko zuzendariarekin akordio bat egin, eta Euskal Fondoaren bitartez bidaltzen duten laguntzaz aparte, dirua biltzeko kanpaina egiteko asmoa dute Loiuko jaientan aurten. “Dirua itsuen zentrorra bidaliko da, umeentzako elikagaiak erosi ahal izateko. Hozkailu bat ere erosi diegu”.

Zaborra batzeko eta bideak garbitzeko sistema berriak udarako

Txorierriko Mankomunitateak zaborra batzeko eta bideak garbitzeko sistemak modernizatzeko asmoa dauka udan, gure herriak garbiago egon daitezzen. Horrela, bada, pedalaren bidez zabaltzen diren edukiontzi berriak ipiniko dituzte eta albotik kargatzeko kamioiak erabiliko dira. Zaborra arinago batzeaz gainera, zarata gutxiago egiten dituzte kamioi horiek.

Bideen garbiketari dagokionez, eskuz garbitzeko ekipo berriak, galtzaden baldeatzaile berri bat eta kartelak eta pintadak garbitzeko ekipo bat jarriko dira. Honela, sistematizazio handiagoa lortuko da fatxaden eta hiri-altzarien garbiketean.

Isidro Deuna Nazioarteko VIII. Xake Tapelketa

Martxoaren 29an, Isidro Deuna Nazioarteko VIII. Xake Txapelketa egingo da Derioko kiroldegian, bertako xake taldeak antolatuta.

Partidak hogeita bost minutukoak izango dira eta 9:30etik 14:00ak bitartean jokatuko dituzte goizez, eta 16:00etatik 19:00ak bitartean arrastiz. Jokalariek zazpi edo zortzi errondako joko sistema suitzarra erabiliko dute. Txapelketan izena emateko epea maiatzaren 28an bukatuko da (944540469; www.derioxake-talde.org).

Hitzaldiak Sondikako Kultur Etxean

Maiatzean hiru hitzaldi emango dira Sondikako Kultur Etxean. Lehenengoa droga kontsumoari buruzkoa izango da, hilaren 10ean, 18:00etan. Hitzaldia seme-alabak nerabezaroan dituzten gurasoei zuzenduta dago. Haurtzaindegi zerbitzua ere egongo da. Izena emateko Udalara deitu behar da (944535171); doakoa da.

Beste alde batetik, Fronte Polisarioaren Euskadiko ordezkariak beste hitzaldi bat emango dute maiatzaren 17an, 20:00etan. Hitzaldia udan Saharako umeak hartzeari buruzkoa izango da. Eta Bularreko Minbiziaren Bizkaiko Elkarteak gaixotasuna goiz detektatzeko berbaldia eskainiko du hilaren 24an, 18:30ean. Hitzaldia emakume guztiei zuzenduta dago, baina, batez ere, berrogeita bost urtetik gorakoak.

Eusko Legebiltzarreko hauteskundeen emaitzak

Apirilaren 17an, Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak izan ziren, eta koadroan agertzen diren emaitzak izan genituen Txorierrin. Beste alde batetik, Zamudioko Arantza Aurrekoetxea EAJ alderdiko legebiltzarkide eta Lezamako Maite Aranburu EHAK alderdiko legebiltzarkide atera direla aipatu behar da. Aranburu Bizkaiko zerrendaburua zen.

Sondika			Larrabetzu			Loiu		
Errolda: 3.560	Abst: 766 (% 21,52)		Errolda: 1.376	Abst: 237 (% 17,22)		Errolda: 1.709	Abst: 343 (% 20,07)	
EAJ	1.646	(% 54,96)	EAJ	624	(% 42,39)	EAJ	909	(% 63,52)
EHAK	238	(% 7,95)	EHAK	346	(% 23,51)	EHAK	89	(% 6,22)
Aralar	27	(% 0,9)	Aralar	35	(% 2,38)	Aralar	14	(% 0,98)
EB	96	(% 3,21)	EB	42	(% 2,85)	EB	28	(% 1,96)
PSE-EE	422	(% 14,09)	PSE-EE	34	(% 2,31)	PSE-EE	92	(% 6,43)
PP	328	(% 10,96)	PP	45	(% 3,06)	PP	210	(% 14,68)
Derio			Zamudio			Lezama		
Errolda: 4.236	Abst: 1.230 (% 29,04)		Errolda: 2.698	Abst: 700 (% 25,95)		Errolda 1.845	Abst.: 404 (% 21,90)	
EAJ	1.347	(% 42,71)	EAJ	1.123	(% 49,36)	EAJ	954	(% 58,53)
EHAK	222	(% 7,04)	EHAK	310	(% 13,63)	EHAK	200	(% 12,27)
Aralar	26	(% 0,82)	Aralar	30	(% 1,32)	Aralar	25	(% 1,53)
EB	157	(% 4,98)	EB	61	(% 2,68)	EB	63	(% 3,87)
PSE-EE	837	(% 26,54)	PSE-EE	245	(% 10,77)	PSE-EE	107	(% 6,56)
PP	343	(% 10,88)	PP	196	(% 8,62)	PP	81	(% 4,97)

Pilotaleku berria inauguratu da Larrondon

Apirilaren 22, pilotaleku berria inauguratu zuen Larrondon Loiuko Udalak. Idoia Zenarruzabeitia lehendakariordea, Jose Manuel Urkijo Ogasun eta Herri Administrazio sailburuordea eta Iñaki Beristain Izartu programaren zuzendaria etorri ziren inaugurazio ekitaldira. Frontoi berriko lanek

1.409.865,02 euroko au-

rrekontua izan dute. Diru kopuru horretatik 868.777,15 euro ordaindu du Loiuko Udalak; gainerakoa Eusko Jaurlaritzak jarri du.

“Larrondo auzoan industriaren hazkunde handia izan da, eta errehabilitazioaren premia zegoela ikusi genuen. Horregatik, Izartu programan parte hartzea erabaki zuen Udalak”, azaldu dio AIKOR! aldizkariari Irune Dañoibeitia alkateordeak.

Dañoibeitiaren esanetan, Izartu programaren bidez, hiru jarduketa burutu dira Larrondon. Batetik, gizarte etxea material informatikoaz hornitu da.



Bestetik, Aspaceko barrakoiak egokitu eta Loiura eraman dituzte. Azkenik, balio anitzeko gunea eraiki da auzoan. Pilotaleku berria gunere horretan kokatu dute eta etorkizunari begira, bertan kultura eta kirol ekitaldiak egiteko asmoa dute. Hiru proiektuetan 1.881.525,53 euro inbertitu dira eta Eusko Jaurlaritzak 894.833,21 euroko diru laguntza eman dio Loiuko Udalari.

“Izartu programarekin amaitzeko, Larrabari bidea urbanizatzeko asmoa dugu. Lanak laster hasiko dira eta 333.496,45 euro inbertituko dugu proiektuan”.

Berba Lagunak Bizkargira

Maiatzaren 8an Bizkargi Eguna ospatuko da eta Larrabetzuko Berba Lagunak taldekoek ibilalditxo egingo dute mendi horretara. Talde horretako kideak astean behin biltzen dira elkarrekin euskaraz egiteko, baina oraingo honetan gonbidapena herritar guztiei zabaldu nahi diete, “zuekin berba egiteko aukera ezin hobea izango delako”. Taldea goizeko 10etan bilduko da Goikoelaxden.

Creditrans txartela Txorierrira heldu da

Apirilaren 14an, Euskotren enpresak Creditrans txartela jarri zuen Deustu-Lezama trenbidean. Horren ondorioz, bidaia %30 merkeago irtengo zaie txartel berriaren erabiltzaileei. Txartelak 75 zentimo balio izango du. Gainera, tren geltokitik irten ondoren, Creditrans txartela onartzen duen beste garraio bat hartuz gero, aurrezpena %20 handiagoa izan daiteke.

Sudango umeen aldeko jai Erandioko Landan

Maiatzaren 7an, zapatuz, Sudango umeen aldeko jai antolatu du Gurari taldeak. Jai ekitaldiak Erandioko Landan egingo dira eta goizeko 10etan hasiko dira. Besteak beste, kalejira, umeentzako jokoak, herri bazkaria eta gaupasa izango dira.

Beste alde batetik, hurrengo zapatuan, maiatzak 14, azoka txiki bat antolatuko dute eta bertan hainbat jenero jarriko dira salgai: eskulanak, liburuak... Egun biotan batuko den dirua Sudango umei emango zaie.

Ikasleak trukatzeko programa Txorierrin

Hizkuntza ikastaroez gainera, Zamudioko Second Language akademiak ikasleak trukatzeko programa eskaintzen die txorierritarrei. Programak kultura desberdinetako lagunen arteko harremana sendotzea du helburu.

Nati Mancebo Second Language-ko gerenteak AIKOR! aldizkariari azaldu dion bezala, programak aukera bi ematen dizkie familiei: alde batetik, Estatu Batuetako ikasle bat etxean hartzea eta, bestetik, seme-alabak bertara bidaltzea ingelesa ikastera.

Programan parte hartzen duten amerikar ikasleak hamalau urtetik hamazazpi bitarteko gazteak dira eta gaztelera lantzerantz etortzen dira Euskal Herrira. “Bertoko kultura eta ohiturak ezagutzeko aukera ere badute eta oso aberasgarria da bai haientzat, bai haiek hartzen dituzten familientzat. Gainera, herritartasun amerikanoa izan arren, jatorri kultural desberdinak dituzte —batzuk asiarrak dira, beste batzuk afroamerikarrak...—; horrek askoz aberasgarriagoa egiten du esperientzia hau”.

Gazteak ekainaren 22tik 28ra bitartean izango dira Euskal Herrian, eta egonaldiak ez dio gasturik ekarriko haiek hartzen dituen familiari. “Ikasleek osa-

sun eta istripu-asegurua dute, baita euren gastuetarako dirua ere. Familiei ez zaie baldintza berezirik eskatzen; gaztea etxeko eguneroko bizimoduan integratu baino ez dute egin behar”.

Aurten hamabost ikaslek bete dute eskaera bertora etortzeko. “Itsasoak eta paisaiak erakartzen dituzte. Euskal Herria independentea dela pentsatzen dute, eta modari dagokionez, herri abangoardista”.

Ingelesa atzerrian lantzeko aukera ere eskaintzen die Second Language akademiak Txorierriko gazteei. “Lau edo bost asteko egonaldiak dira Kalifornian, Washingtonen eta New Yorken, besteak beste”. Egonaldiak 2.000 bat euro balio du eta prezioaren barruan daude bidaia, aseguruak, familia hartzailerekin egonaldia eta monitorea.

Harremanetako telefonoa:
944522511 (Amaia eta Itziar)
944448062 (Nati eta Almudena)
www.secondlanguage.es



Anglie eta Euskal Herriko familia

Gasteizko Lourdes Ugartek Anglie hartu zuen etxean pasa den ekainean. “Oso neska jatorra eta arduratsua zen Anglie. Hizkuntza ondo ezagutzen zuen eta ederki integratu zen etxean”. Gasteiztarra pozik agertu da esperientziarekin. “Mundu guztiari gomendatzen diot. Neskak ekarpen handiak egin zizkigun etxeko guztioi, eta aurten ere beste ikasle bat hartzeko asmoa daukagu”.

Euskal Herriko txokorik politenak erakutsi zizkieten amerikarrari, eta anekdota pilo dituzte kontatzeko. “Egundoko sustoa hartu zuen arrain bat ikusi zuen lehenengo aldian, izan ere, arrainek itxura errektangeluarra zutela pentsatzen zuen. Eta dilistak dastatu zituen egunean? Beste gauzarik ez zuen jan nahi, gero! Momenturik tristeena Estatu Batuetara itzuli zenean izan zen”.

Rakel Pujana, trikitilaria



“Erromerian egon beharrean, tabernara sartzen dira asko”

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Duela gutxi Rakel Pujana trikitilaria izan dugu Zamudion, Bertoko Soinu Tresnen Elkarteak gonbidatuta. AIKOR! aldizkaria solasean egon da Markinako gaztearekin.

Ikastaro berezia eman diezu Bertokoko ikasleei...

Abesteko ohitura berreskuratzeko asmoz abian jarri du ikastaro hori Bizkaiko Trikitixa Elkarteak. Abesteko ohitura handia zegoen antzina, baina, tamalez, galdu egin da gaur egun. Ordu bete inguruko saioa da eta tarte horretan euskal abestiak kantatzen ditut haurrekin batera. Pieza batzuk ezagunak dira; beste batzuk ez. Orotara zortzi saio eskainiko ditugu Bizkaian zehar.

Eta zu, nola hasi zinen trikitixa munduan?

Amak musika munduan murgildu eta musu-soinua jotzen hasi nintzen lau urte nituela. Artean ez nekien irakurtzen, baina noten kokapena esaten zidan berak eta horrela hasi nintzen abestiak jotzen... Eta lau urterekin joan nintzen lehenengo aldiz instrumentu hori jotzera Euskadi Irratira. Bi urte beranduago solfeoan sartu eta txistu eta trikitixa ere ikaste-ari ekin nion. Ikasketak zirela eta, utzi behar izan nion trikitixa eskolara joateari hamezortzi urte nituela, eta handik aurrera instrumentua neure kabuz lantzen ibili naiz.

Abeslaria ere bazara...

Betidanik gustatu zait abestea eta hamabost urterekin Kantu Txapelketetan parte hartzera animatu nintzen. Panderoarekin nenbilen garai hartan, baina gitarra jotzen ere bazekien

“Beldurra ematen dit jendearentzat nire lana gustuko ez izateak”

maisua eta abesti pare bat irakasteko eskatu nion. Pixkanaka-pixkanaka kantuak landuz joan nintzen gitarrarekin... Egia esan, ez nengoen pozik egindako lanarekin -nahiko geza gelditzen zelako-, eta pianista batekin batera aritzea erabaki nuen. Eibarko Joseba Barrutia da pianista hori. Kontzertuak ematen ditugu, baina ez nahi beste... Oso mundu zaila da hau.

Hamabi kantu sortu arren, ez dituzu horiek eskaintzen emanaldietan. Zergatik?

Abesti ezagunak kantatzea nahiago ditut, lasaiago sentitzen naizelako. Beldurra ematen dit jendearentzat nire lana gustuko ez izateak... Ordubete eta laurdeneko saioak eskaintzen ditugu, eta euskal kanta izan arren, ingelesezko abestiren bat ere kantatzen dugu noizean behin.

Diskorik ez duzu; inoiz ateratzeko asmorik?

Gustatuko litzaidake, baina zaila da eta ia guztiz baztertuta daukat aukera hori. Norbaiten laguntza edota entxuferik gabe ezinezkoa da, nire ustez. Beste alde batetik, beste

musikari batzuekin kolaborazioak egitea ere gustatuko litzaidake, esperientzia hori bizitzeko.

Kantu Txapelketa askotan ibilia zara; postu onak ere lortu dituzu...

Euskal Herriko Txapelketa lau urterik behin egiten da eta birritan ailegatu naiz finalera: 2000. eta 2004. urtean. Iaz ez nuen saririk jaso, baina oso pozik gelditu nintzen Kurasaalean egindako lanarekin. Iparraldekoek eraman zituzten sari gehienak eta merezita, gainera. Bizkaiko Txapelketak urtero izaten dira eta hauetatik ere gustura irteten naiz, lehenengo eta bigarren postuak askotan lortu ditudalako. **Euskal Herriko hainbat plazatan aritu ondoren, zer esango zenuke publikoari buruz?**

Gero eta okerrago ikusten dudala. Abesteko ohitura galdu da eta trikitixa ere ez da lehen zena. Erromerian egon beharrean, tabernara sartzen dira asko eta berdin die kanpoan dagoenak. Ez dakit nola, baina egoera hori aldatzen saiatu beharko da.

Andereñoa zara Elorrioko ikastolan, irakaslea Markinako Musika Eskolan eta Haur Hezkuntza ikasten zabilta. Hemendik aurrera, zer?

Orain arte bezala jarraitzeko asmoa daukat. Eta kantua gehiago lantzea gustatuko litzaidake, nahiz eta hortik bizitzeko asmorik ez izan.


Nork agintzen du hemen?

Erabaki bat hartzea, gehienetan, instante edo unetxo bateko kontua izaten da. Iritzi horri beste hau gehitu ahal diogu: denbora ezin dela gelditu, amarratu. Badoa, eta kito.

Eta behin egia borobil hori osorik eta erabat onartzen dugunean, gure urrats guztiak atzeraezinak dira. Ez dago bueltarik. Beraz gure bizitzaren lemazain, pilotu eta kapitain gura dugu izan. Gure erabakien subirano, alegia. Ostera, sarritan gazteen masa grisean zalantza edo itaun honek gure irmotasuna kolokan jartzen du: Nork dauka nire buruan agintzeko botere gehiago? Neronek? Gurasoek? Koadrilak? Neska edo mutil katxarro horrek? Agintari eta boteredunek? Poteatzea egunero garestiago bihurtzen dutenek?

Ba justu horixe da gaur txoko honetara, laburki, ekarri nahi dugun gaiaren gakoa, mamia, funtsa, muina: boterea eta agintearen ondorioak. Hau da, bi kontzeptu horien arteko harreman desorekatuak sortzen dituen egoerei nola egiten zaien aurre eta zer nolako eragina duten gazteongan. Aizue, ezin dugu ez ikusiarenak egin: gizarte honen ezaugarri ezkorren artean daude agintearen erabilera bidegabea (despotikoa askotan) eta botere ekonomikoa dutenek gazteen bizi kalitatearekin eta etorkizunarekin loditzen ari direla. Ala ez?

Egunero, uneoro, bizi dugun oparota-



suna ze ahula den gogorarazten digute. Hortaz, gehiengoak errealitatea eraldatzeko ahaleginik ez egitea erabakitzen du, mamuen mamua esnatuko ote den beldurraren beldurrez. Badago gazte ugari, ematen diotenarekin konforme dagoenez, aldatarik nahi ez eta beste aldera begiratzea hautatzen duena ere. Horien buruetan argi dagoenez, kanpo eragileek agintzen dute. Mendekotasun maila baten bizitza erabaki dute.

Alderantziz, markatutako ildoetatik ateratzen direnak edo arau eta gizarte-mugarrietatik haratago dagoena esploratu nahi dutenak ere badaude. Kontatzen diguten pelikula sinistu ez eta eredu

berrien bila ateratzen dira, bakarrik edo taldean; gaurdanik herri eta auzoetan eraikitze lanetan buru-belarri murgildurik aurkitzen ditugu gazte erakundee-tan, herri mugimendu ezberdinetan, politikan, kirolean, kulturean; gauzak beste modu baten egin eta sentitu daitezkeela proposatzen dutenak, azken finean. Gazte horiek beraien lokarriak beste kaia baten amarratzen dituzte.

Baina agintarien begietara hori ez denez egin behar, zuzena eta moralki

gizalegezkoa dena bakarrik onargarria denez, zigorra eta isuna itxaroten daukazu; legeek epaituko zaituzte, justizia armairuan sarturik bahituta duten bitartean. Hala ere, zure errugabetasuna kamiseta gorri batekin defendatuz aurre egiten badiezu ziega baten ezkutatuko zaituzte, inor gehiago kutsatu ez dezazun. Eta urak bere bidetik; beti horrela izan denaren antzerki eginez. Ederto dakite, ordea, hori gezur handia dela. Dena aldatzen doala.

Dena esanda dagoenez, orain, zeuk erabaki. Denborak guztia bere tokian ipintzen omen du. Ia non harrapatzen zaituen.

Testua: Agote

Musikan hasi berriak

Jaialdi berezia egin zena Larrabetzuko Hori Bai gaztetxean otsailaren 11n, izan ere bertan aritu ziren hiru taldeek –Las Furias, OGT eta Armada Gorria- lehendabiziko aldiz eskaini zuten kontzertua. Ilusioz eta urduritasunez beteriko kontzertua izan zen hura.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina

Las Furias, jainkosak infernutik atera dira

Greziako mitologian Las Furias edo Eumenides behe-munduan bizi ziren hiru jainkosa mendekatzaille ziren. Gauzez bizidunen mundura igo eta gizakien bekatuak zigortzen zituzten. “Errebindikazio-musika egiten dugu: boterearen kontra eta emakumeen aldekoa. “Cachonda Total” abestiak, adibidez, neskak mutilekin baino geure buruarekin gehiago gozaten dugula aldarrikatzen du”. Leioako Ametsek (abeslaria), Larrabetzuko Amaiak (gitarra) eta Morgako Idoiak (baxua) osatzen dute punk taldea. “Zornotzako Tamarak jotzen du bateria, baina txarto dabil eskutik eta gure lagun Delgarekin aritzen gara kontzertuetan”.

Las Furias taldea duela hiru urte sortu zen proiektua da; hala ere, joan den abendura arte ez dira entseguak serio egiten hasi. “Abesti pilo bat egin dugu, baina gehienei musika jarri behar zaie oraindik. Kontzertuetan jotzeko moduko bost kanta baino ez ditugu; Las vulpess, Eskorbuto, Piperrak eta Kortatu taldeen bertsiok, besteak beste, egiten ditugu”.

Maketa buru-belarri prestatzen dabilta



“Punk jorratzen duten oso neska gutxi egoteak laguntzen digu kontzertuak ematen”

neskak, izan ere ekainean lau abesti grabatuko dituzte Bilborocken. Eta entseguak ahal duten lekuetan egiten dituzte: etxean, lagunaren lokalean... “Lokal bat alokatzea pentsatu dugu, baina gutxi daude eta daudenak garestiegiak dira”.

Atzamarrak apurte arte entseatu zuten Hori Baiko kontzertua baino lehen. “Ondo irten zen, urduritasuna pasa eta eszenatokitik jaisteko gogorik ez!”. Kontzertu horren ostean, hainbat deia jaso dituzte gaztetxeetan aritzeko, baina Zorrotzan baino ezin izan dute jo azterketak direla-eta. Udan kontzertuei ekingo diete berriro. “Punk jorratzen duten oso neska gutxi daude eta horrek laguntzen digu”.

Elkarrekin musika egin, maketa eta euskarazko letrak jorratzea lehentasuntzat dituzte Ametsek, Amaiak eta Idoiak. “Gaztelaniaz landu ditugu kantak orain arte, errazago suertatzen zaigulako. Hutsune hori betetzen ahaleginduko gara”. Baina Las Furiaskoek ez dute egundoko talde bihurtzeko asmorik. “Taldea komertzial bilakatuz gero, gure printzipioen aurka egingo genuke, eta talde “barrakeroa” izan nahi dugu guk”.

OGT, Sid Vicius berpiztu da

“Behin, Sid Viciusekin egin nuen amets, eta OGT sortu behar nuela agindu zidan (kar, kar, kar)”, azaldu digu Geldoseko Anderrek (gitarra eta abeslaria). Bromaz aparte, bera eta Joel (gitarra eta performance, Sopelakoa) jaialdi batean egon eta bertan aritzen ziren taldeak gaur egungo musika panoramako talde famatuak kopiak baino ez zirela egiaztatu zuten. “80. hamarkadako euskal punka berreskuratu behar genuen. Eta gurea barreak egiteko taldea izango zen, gainera”. Larrabetzuko Egoitz (bateria) eta Bilboko Pablo (baxua) gerorago elkartu eta horrelaxe sortu zen OGT pasa den abuztuan.

OGTren musikan nabaria da hainbat legendazko talderen eragina: The Clash, Sex Pistols, Kortatu, Specials... Hala ere, ez dira ados jartzen euren letrei buruz hitz

“80. hamarkadako euskal punka berreskuratu nahi dugu”

egiteko orduan. “Kritika egiten dugu...”, “Ez, ez. Gertatzen zaizkigun gauzen gainean mintzatzen gara...”. Hori bai, ironia eta zorroztasunez beteriko kantak dira eurenak. “Amodiozko kanta bat idatzi diogu

neska bati. Neska hori anarkia da. Nor, bestela?”. Dagoeneko, 10 kanta osatu dituzte eta musika eta letra gehienak Anderrek egin ditu, “baina iradokizunak onartzen dira”. Estudio batetik bestera dabilta galdezka, eta laster maketa grabatzeko ilusioa dute. Entseguak Bilborocken egiten dituzte.

Festa giroa sortzeaz gainera, publikoari energia transmititzea dute helburu lau gazteek kontzertuetan. “Kaosak erreinatzen du eszenatoki gainean. Joelek gitarra kendu eta egundoko ikuskizuna ematen du. Desfasatzen dugu. Japo abestia jotzen dugunean txuak botatzen dizkiogu jendeari, baina ez digute erantzuten. Egingo balute, la ostia izango litzateke, oso punki”.

Hori Baien emandako lehendabiziko kontzertuarekin ez daude oso pozik. “Soinu-arazoak izan genituen eta ez zen ondo irten... Gipuzkoa aldean izan gara birritan gero, eta askoz hobeto atera zen asuntoa... Baina bertako jendea oso hotza da, ez da mugitzen”.



Udan OGTTourrekin hasteko asmoa dute, eta etorkizunari buruz galdetzen zaienean “no future” erantzuten dute. “Izan beharko dena izango da”. Jakin badakite musika munduan hastea oso zaila dela, “entseguak egiteko lokalik ez dagoelako eta talde ospetsuak baino ez dituztelako hartzen herriko jaietan”. Baina gazteak animatu nahi dituzte musika egitera, “Beitu gu! Ez gara ezer eta hor gabiltza, kontzertuak ematen. Zorionez, beti izango ditugu gaztetxeak”.

Armada Gorria, punk-rock Larrabetzutik

“Oso urduri geunden, baina eszenatokiara igo bezain laster lasaitu ginen. Gaztetxean jendetza batu eta giro polita sortu zen. Etxahunek eta Zorok abesti bana kantatu zuten gurekin batera... Akats batzuk egin arren, inprobisazioari ekin genion eta kontzertua aurrera ateratzea lortu genuen. Horrelakorik ez zaigu ezta entseguetan ere gertatzen! Pozik lotu ginen”, Hori Baiko kontzertua gogoratuz hasi dugu elkarrizketa. Urdinek (gitarra), Asierrek (baxua), Gorkak (gitarra), Peruk (bateria) eta Endikak (abeslaria) osatzen dute Larrabetzuko Armada Gorria musika taldea. Batzuek bazuten aurretik beste proiektu bat esku artean, baina ez zen atera eta Armada Gorria sortzea erabaki zuten pasa den abuztuan. “Gorka da taldearen bultzatzailea. Besteok erakarri gintuen”. Punk-rock jorratzen dute eta autodidaktak direla azaldu digute. “Belarriz jotzen dugu, hala ere, kantu txukun- txukunak egiten ditugu, ez pen-

tsa!”. Musika eta hitzak guztien artean lantzen dituzte eta dagoneko 10 abesti osatu dituzte. “Momentu horretan buruan eduki ditugun kezketan oinarritu

“Badakigu zerbait handia egingo dugula”



gara abestiak konposatzeko: politikari batzuen jarrera, gaztetxea, Ama Lurra... Gehienak sistemari egindako kritikak dira”. La Polla, Iron Maiden, Boikot, Koma eta abarreko taldeek eragina dute eurengan.

Armada Gorriak ez dauka maketarik momentuz, eta etorkizunak ere ez ditu kezkatzen. “Badakigu zerbait handia egingo dugula, baina ailegatu behar denean ailegatu da”. Elkarrekin ondo pasatzea, abestiak lantzea eta lokala topatzea lehentasuntzat dituzte gaur egun. “Lagun batek utzitako lokal batean egiten genituen lehen entseguak, baina auzokideak kexatu eta alde egin behar izan genuen. Orain ez daukagu lokalik eta Hori Baien entseatzeko dugu noizean behin... Baten batek leku bat utzi ahal badigu, eskertuko genuke. Larrabetzun bertan baldin bada, askoz hobeto; osterantzean, moldatuko ginatke”.

San Isidro 2005, Derio jaietan



Maiatzaren 13tik 16ra bitartean San Isidro jaiak ospatuko dira Derion. Udalak ekitaldi sorta zabala antolatu du herriko kultura taldeekin batera, eta, aurreko urteetan bezala, aurten ere jai egitarau bikaina izango dute derioztarrek: musika, kirola, azoka, erakusketak, dantza...

Testuak: Bestorrene

“Ekitaldirik erakargarrien artean gazteentzako kontzertuak daude”, adierazi diote Aikor! aldizkariari Gabriel Ugalde kultur zinetotziak eta Maria Galindo kultur teknikariak. “Idi probak eta umeentzako herri kirolak ere izango ditugu”. Idi probetan Martin Aurrekoetxea (Loiu), Sabin Bizkarregi (Erandio) eta Jose Elurtegi Txapas (Urduliz) lehiatuko dira. Alaiki taldeak, berriz, herri kirolak egingo ditu umeentzat.

Betiko ekitaldiek ere euren lekua izango dute aurtengo jai egitarauan: dantza agerraldia, pilota partiduak, Sukalki Eguna, antzerkia... Baina berritasunak ere izango dira Derioko jaietan. “Barikuan perkusio kontzertua izango dugu Urkiola kalean. Toki hori aukeratu dugu aurten jai giroa herriko beste txoko batzuetara ere zabaltzea gura dugulako”. Domeka goizean, Dalmacio Langarikaren omenezko zikloturista ibilaldia izango da, Euskaltel-Euskadi Fundazioak antolatuta. Zapatuan, Astondoa pirotekniak argi eta soinu ikusizuna eskainiko du Herriko Plazan. Ikusminik handiena sortuko duen ekitaldia izan daiteke, ziur asko. “Lehenengo aldiz egingo da eta ikusgarria izango dela uste dugu. Udaletxean argiak jarri eta suak botako dira... Baina ezin dugu gehiagorik kontatu. Etorri eta orduan ikusiko duzue. Merezi du, duda barik”.



Jai egitaraua

Maiatzaren 13a, barikua

19:30ean Konpartsen jaitsiera, lehiaketa eta animazioa, Guretzat fanfarrearekin
 20:30ean Pregoia Athleticceko neskekin.
 Txitxi-burruntzia
 21:30ean Eskupilota partidua
 23:00etan Perkusio kontzertua, Urkiola kalean

24:00etan Hip-hop eta reggae kontzertua txosnetan. Bad Sound System Sondecalle, break dance, Dj eta Puzzle Rap Frances

Maiatzaren 14a, zapatua

11:30ean Umeentzako Herri Kirolak, Herriko Plazan
 18:00etan Dantza, Lainomendi taldearen eskutik
 20:00etan Kaleko antzerkia, Nagusien Etxearen aurrean. El pisito obra, Trapu

Zaharrak taldearen eskutik

22:00etan Kontzertua, txosnetan. Arazoak 11, Inoren Ero Ni eta Kauta
 23:00etan Continente orkestra, Herriko Plazan
 24:00etan Argi eta soinu ikuskizuna, Herriko Plazan

Maiatzaren 15a, domeka

10:30etik 14:30a arte Elikagai eta Eskulanen X. Azoka: txakolin txapelketa, haritzeko kupelak egiten dituzten artisaauak, burdinazko eskulanak, ganadu erausketa, umeentzako tailerrak...
 12:00etan Taekwondo erakustaldia, herri ikastetxean. Sukalki Eguna, Uribe parkean.
 18:00etan Umeentzako berbena
 19:30ean Idi probak, probalekuan

Maiatzaren 16a, astelehena

11:30etik 14:00ak arte Umeentzako parkea
 12:30ean Marrazki txapelketa, Odol Argia taldearen eskutik
 16:30etik 19.30a arte Umeentzako parkea. Musika, animazioa
 20:00etan Marrazki, Argazki, Briska eta Konpartsa Txapelketen sari banaketa. Musika, txokolatada eta jai amaiera



Paristik datorren hip-hop

Jaietako barikuan -iaz zapatuan izan zan-, hip-hop-aren gaua izango da. D160Crew taldea arduratzen da jaialdiaz eta eskainiko deuskuena hauxe da:

Bad Sound System. Irundarrak. Sarritan Fermin Muguruzaren Dub Manifest zein Kontrabandaren emanaldiak itxi izan dabaz Euskal Herrian. Esku artean dakarrena Lesakako Zambra aretoan Fermin Muguruza Kontrabandarekin batera egindako kontzertu bateko saioa da. Hip hop, rap, dance hall, ragga eta free style lantzen dabaz.

Puzzle. Parisen jaio eta bizi da bere alma-materra, Logilo. Askoren ustez "Europako Premiera". DJ eta produktorea hainbat lanetan. Logilo Prod sigilua

sortu eta kudeatzen dau, eta bere estudioetan talde ugari grabatzen dabe. 1997 urtetik gaur arte hainbat lanetan parte hartutakoa. Banda ezbardinekin ibili da, euren artean Harcelement Textue, Les Sages Poetes de la Rue eta Deriora jatorrkuna: Puzzle. "Hyper Cut School" DJ eskolan klaseak emoten dauz gaur egun.

Sondecalle. Bartzelonatik datoz. Ohikoa ez dan hirukotea: neska bi -bata mikroan- eta mutil bat. La Placka kolektiboan parte hartzen dabe eta denbora dezente erioen kontzertuak emoten, baita beste artistekin kolaborazioak egiten ere. Iazko urte amaieran euren lehen abestiak grabatu ebezan: "D'Star x Casa" maxia.



X. azokan Lehen Herri-saria txakolin onenari

Elikagai eta Eskulan azokak 10garren ediziora heldu da aurten. Hirurogeita hamar postu inguru izango dira, horreetako sei Txorierriko txakolin ekoizleenak. Nobedade moduan, aitatu daiteke aurten txakolin onenari Herriaren Saria emongo jakola lehenengoz. Dastatu ostean goxoenari botoa emoteko aukera izango dau kopa eta tiketak erosi dituan edonork. Tailer berezi bi ere egiteko asmoa dago, bata lorezaintzaren ganean eta bestea taloa egiten irakasteko.



Gineako erritmoekin dantzatzeko, "Cansala"



Derioko jaietako nobedadea da Urkiola kalean barikuan izango dan perkusino kontzertua. Cansala taldeak eskainiko dau kontzertu hori. Korrika-14 pasatzerakoan ere aritu ziran eta oso pozik itxi eben jendea. Zortzi bat lagun dira, hiru bizkaitarrak eta besteak Kongo, Ginea, Gambia edota Eskoziakoak. Aurten hasi dira talde

honetan, otsailean hain zuzen ere, baina lehenagotik beste talde batzuetan ibiliak dira. Cansalakoek egiten dabezan kantan, musika zein dantzak Gineako mandinganak dira. Batzuk txikitatik dakiez euren herrietako ohitura dalako, besteek Afrikan, Ruestan edota Bilbon eginiko ikastaroetan ikasi dabaz.

Euskal rocka zapatuan

Maiatzaren 14ko kontzertuaz Tximintx Euskara Alkartea arduratu da. Iazko moduan, aurten bere Derioko jaietan gazteentzako kontzertu euskalduna antolatu gura dabe. Hauexek izango dira gaueko 22:00etan hasita joko daben taldeak:

–**Araozak 11**: Bilboko talde gaztea. Ez dabe diskorik, gazteak dira baina seguruenik

askorentzat sorpresa ederra izango da.

–**Kauta**: Disko bat argitaratu dau Angoaingo talde honek: "Izan zaitetz zu". Talde berria da, gaztea, freskoa. 2004an Euskadi Gazteko maketa lehiaketan entzulearen saria irabazi eben. Azken aldi honetan arrakasta polita daukan taldea da, eta Txorierrin lehenengoz joko dabe.



1.200 litro txakolin saldu dira Larrabetzuko azokan

Aprilaren 10ean Txakolin Eguna ospatu zen Larrabetzun eta Txorierriko 15 txakolingilek parte hartu zuten bertan

Eguraldia lagun ez izan arren, hainbat lagun hurbildu ziren urira eta Txorierriko ekoizten den 30 txakolin mota ezberdin dastatzeko aukera izan zuten. Azokan aurkeztutako ardo guztiek Bizkaiko Txakolina jatorrizko deitura zuten, eta 1.200 litro saldu ziren, orotara.

Lezamako Aiarzaren txakolinarekin egin zen aurtengo brindisa eta Peñagarikano eta Zuazo bertsolariak aritu ziren Txorierriko produktuaren bikaintasunen gainean.

Beste alde batetik, etxeko gazta egiteko tailerra izan zen Larrabetzuko azokan, baita upelak egiteko jarraitu behar diren pausuen erakustaldia ere. Horrezaz gainera, bertoko pate, txalortorta (hanburgesa ekologikoa) eta oreinkiaren dastaketa izan zen, besteak beste. Euskal pastela, Idiazabaleko gazta, jogurta eta arrauts ekologikoak ere dastatu eta erosi ahal izan zituzten herritarrek.



Bizkaiko Dantzari Egunak 3.500 dantzari bilduko ditu Erandion

Bizkaiko Dantzari Egunak hiru mila eta bostehun dantzari bilduko ditu Erandion

Maiatzaren 15ean, Bizkaiko Dantzari Egunaren 25. edizioa ospatuko da Erandioko Arteaga futbol zelaian, Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak antolatuta. Bertan laurogei bat talde bilduko dira, hiru mila eta bostehun dantzari, guztira.

Erandioko Landako Goialde dantza taldeak laurogei urte beteko ditu aurten, eta horregatik aukeratu da Erandio herria, Bizkaiko dantzarien jaialdia egiteko.

Egitaraua:

Maiatzaren 14an

Bezperako ikuskizuna, Euskadiko Plazan (Erandioko Landea)

Maiatzaren 15ean

10:00etan Taldeen elkartzea

11.30ean Dantza agerraldia, Arteaga futbol zelaian

Dantzari dantza (agintariarena, ezpata joko txikia, makila-dantza...)

Neskentzat egokitutako Gipuzkoako dantzak (agurra, zinta dantza...)

Dantzari ertainak dantzan (martxak, aitzina pika, Olagueko esku dantza...)

Eltziegoko dantzak (correcalles, jota, arbol...)

Gorulariak (dominguillo, arku dantza)

Dantzari txikiak dantzan (txulalai, zapatain, Xan Petrike...)

Villabuenako makila-dantzak (bailaos, paloteao/troquea...)

Kaixarranka

17:00etan Erromeria, Goiko landan.



Argazkiak: Bizkaiko Dantzarien Biltzarra



Zamudioko Pazko

Maiatzaren 14tik 21era bitartean Pazko jaiak izango dira Zamudion, eta jai-giroan murgiltzeko hamaika aukera proposatzen dizkigu bertako Udalak eta kultura taldeek.

Jaietako hasiera ofiziala maiatzaren 20an izan arren, hainbat ekitaldi izango ditugu maiatzaren 14tik 16ra bitartean ere Zamudion. “Abesbatzen kontzertua eta Eslaloma egun horietan egingo dira, talde asko kanpotik etorriko direnez datak apur bat mugatuta genituelako”, azaldu diote Aikor! aldizkariari Arantza Aurrekoetxea Kultura Zinegotziak eta Asier Amarika Kultura Teknikariak.

Iraultza futbol taldeak irakurriko du pregoiak eta momentu berezia izango da, ziur asko. “Izan ere, 25 urte bete dituzte aurten”. Eta handik aurrera festa hasiko

da: kalejirak, txapelketak, umeentzako jokoak, dantzaldiak...

Kontzertuak ekintzarik erakargarrienera bat izango dira gazteentzat, baina musikaz gainera kirola ere edukiko dituzte zamudioztarrek. “Sokatira eta harrizulataileak egongo dira zapatuan, eta, nola ez, pilota partidak domekan”. Eta Yembe taldeak amaiera arranditsu eta arrakastatsua emango die jaiari. “Senegaleko kantak eta dantzak egiten dituzte. Oso ikuskizun polita eskaintzen dute eta bukaera bikaina izango dela pentsatzen dugu”.

Jai egitaraua

Maiatzaren 14a, zapatua

20:30ean Abesbatzen emanaldia elizan

Maiatzaren 15a, domeka

10:00etan Eslaloma Torrelarragoiti poligonoan

11:00etan Meza Nagusia San Martin elizan

Maiatzaren 16a, astelehena

11:00etan Meza Nagusia San Martin elizan

12:00etan Kopaua jubilatuen etxean
16:00etan Mus eta briska txapelketa, jubilatuen etxean

Maiatzaren 20a, barikua

19:00etan Pregoia Iraultza futbol taldearen eskutik

19:15ean Kalejira: trikitilariak, txistulariak, erraldoiak, buruhandiak...

21:00etan Perretxiko jana Sabino

Arana plazan

24:00etan Kontzertuak: Argamboys,

Sonora Djembe eta Ene Bada

Maiatzaren 21a, zapatua

09:00etan Sukalki txapelketaren hasiera. Ibilaldia Ganguren menditik,

Arroeta mendi taldeak antolatuta

10:00etan Umeentzako jolasgarriak

11:30ean Kalejira

12:00etan Gorritiren animaliak

14:00etan Sukalki txapelketako sarietan banaketa eta bazkaria

16:00etan Bertoko taldearen emanaldia. Futbol partida

17:00etan Harrizulataileak

17.30ean Sokatira

24:00etan Kontzertuak: Los Moñas, Celtas Cortos eta Trikitio

Maiatzaren 22a, domeka

11:00etan Meza Nagusia San Martin elizan. Pilota partidak

11.30ean Kalejira

13:00etan Dantza erakustaldia plazan, Zamudioko Hiru Bat taldearen eskutik

19:00etan Dantza ikuskizuna, Senegaleko Yembe taldearekin

jaiak prest!



Sokatira lehenengoz jaietan

Pazko Jaiek badute berritasun bat aurten, izan ere, lehenengo aldiz egingo da Lauko Sokatira Torneoa, Udalak eta Euskal Herriko Sokatira Federazioak antolatuta. Lehiaketa maiatzaren 21ean izango da (Harri Zulatzaileen Txapelketa amaitu ostean), eta bertan sei klub lehiatuko dira: Gaztedi (Laukiz), Goiherri (Erandio), Nuarbe (Azpeitia), Areso, Mutriku eta Getxo. Klub bakoitzak talde bi aurkeztuko ditu eta hirurehun kiloko tiraldiak egingo dira. Torneo hori Euskal Herriko Lauko Txapelketarako puntuagarria izango da.

Harrizulatzailen txapelketa

Maiatzaren 21ean, Harri Zulatzaileen Txapelketa izango da Zamudioko jaietan, Meatzaldeko Harri Zulatzaileak taldeak antolatuta. Txapelketa hori Euskal Herriko Harri Zulatzaileen VII. Ligarako puntuagarria izango da, eta Sondika, Txorierri, Errekaxo eta Trapagarango Aldai-alde taldeek hartuko dute parte.

Lehiakideek hamar zentimetroko sakonerako zuloak egin beharko dituzte harrian hogeita hamar minutuan.



Eslaloma berriz ere

Iazko San Martin jaietan eslalom-proba egin zen lehenengo aldiz, eta ekitaldia arrakastatsua izan zela ikusita (2.000 bat ikusle), aurten ere antolatzea pentsatu du Txorierri Motor Sport Taldeak. Proba maiatzaren 15ean, goizeko 10:30ean hasiko da.

Izena emateko epea egun berean amaituko da eta horregatik zaila da jakitea zenbat pilotok hartuko duten parte. "Berrogeita zazpi lehiakide izan ziren iaz, baina aurten kopuru hori jaitsi nahi dugu, luzeegia ez dadin izan", esan digu elkarteko Joseba Aurtene-tzek.

Zirkuitua Torrelarragoiti industrialdean kokatuko da eta hiru manga egingo dira: lehenengoa berotzeko izango da, eta beste biak karrerak. Gainera, pilotu batzuk ekarriko dira, erakustaldia egiteko; haien artean, Carlos Esteban Roky egongo da. Proba hau Euskadiko Slalom Txapelketarako puntuagarria izango da.

Larrabetzuko Jubilatuen Elkarteak hogei urte bete ditu

Hogei urte igaro dira Larrabetzuko Jubilatuen Elkarteak sortu zenetik, “2004ko urrian bete ziren” diosku Jesus Mari elkarteak idazkariak. Bera, Elena (presidentea), M^a Dolores eta Cristobal dira batzordeko kideak eta euren lan eta asmoren berri eman dizkigute.



Testua eta argazkia: Ines Serrano

Nola sortu zen elkarteak?

Aspalditik ere bazebiltzan hainbat lagun, plazako leku batean batu, kartetan egiten eta elkarrekin egoten zirenak, baina 1984ko urrira arte taldea ez zen elkarte moduan eratu. Ordukoak dira lehenengo akten liburu ofiziala, bazkideen zerrenda zehatza eta abar. Antzina erabiltzen ziren Estatuko Baleak daude itsatsita lehenengo aktaren liburuan.

Nolakoa zen giroa orduan?

Plazako harategiaren ondoko lokalean biltzen ziren jubilatuenak. Lokal horretako zati bat eskola emateko erabili zuten geroago, baina gure lokalarekin bat egin zen azkenik, jendearentzako lekua askoz ere handiago eginez. Bertan aretoa eta taberna zeuden. Orduan fregonarik ere ez zegoen, eta behea areaz garbitu behar izaten zuten, etxe askotan bezala. Bertan elkartu, kartetan egin ... eta gauzak antolatzen ziren: bidaiak eta abar. Tabernako kudeaketa ere Batzordeak eramaten zuten. Horretan egon gara hainbat denbora.

Baina orain beste leku batean dago Gure Etxea...

Duela hiru bat urte, Udalak plazako lokala behar zuela eta, gure egoitza aldatu behar genuela azaldu zigun, eta herriko frontoiko instalazio zaharrak bota eta eraikin berria altxatu zuten. Beheko solairuan taberna bat dago eta bulegoa eta

goiko lokalak guk erabiltzeko dira. Orain tabernaren ustiaketa subastaren bidez esleitu du udalak eta guk ez dugu zerikusirik horrekin.

Elkarteko kudeaketa ere zertxobait aldatuko zen.

Gaur egun bulego berria dugu ordenadorea eta guzti. Eta erabiltzen dugu informazioa gorde eta idazkiak egiteko, izan ere hainbat eskabide, memoria eta proiektu aurkeztu behar dira gure azpiegitura mantentzeko (dirulaguntzak...). Beste lan mota bada, eta egin, egin behar da.

Zenbat bazkide dago gaur egun? Eta zenbat lagun batzordean? Baduzue harremanik beste elkarte batzuekin?

Gaur egun 264 bazkide daude Elkartearen eta sei lagun gabiltza lanean batzordean. Beste alde batetik, Mungialdeko eskualdekoekin ere koordinatzen gara. Hamabi herrietako elkarte gaude bertan. Hiru hilabeterik behin batzartzen gara, informazioa trukatzeko eta elkarrekin gauzak egiteko. Esate baterako laster artisautza eta eskulan erakusketa bat egingo da Bilboko jubilatuen etxean eta gure bazkide batzuk egindako lanak aurkeztuko dira Mungian, egur landuaz egindako erloju eder bat, besteak beste. Hautatua bada, Bilbora bidaliko dute, eta agian Donostira ere joango da, bertako erakusketan besteekin ikusgarri.

Gaur egun lehen baino gauza gehiago

daude nagusientzat?

Gauza gehiago antolatzen dira, gehiago mugitzen gara. Urtero gutxienez lau-bost txango egiten ditugu, eta bidaiak kulturallak izatea nahi dugu. Esate baterako Urkiolako San Antonio Santutegira, Karmengo Ama Birjinaren egunean portu batera... Aurten Azpeitia eta Zumaiara joan gara euskal trenari buruzko erakusketara; urria aldera Mendabiara joaten gara, eta bidaia aprobetxatuz, pikillo piperraren azokara. Gernikako urriko azken asteleheneko azokara joateko ohi-

**“Mungialdeko
elkarteekin batzartzen
gara hiru hilabeterik
behin, informazioa
trukatzeko eta elkarrekin
gauzak egiteko”**

tura ere badugu eta aurten Bermeo aldera jo nahi dugu, museoren bat bisitatzeko. Bilboko eskulan erakusketa dago...

Foru Aldundiak nagusientzako jaia egiten du BECen urrian, eta guk hara joateko autobusa antolatzen dugu, freskagarria eta guzti.

Eta gauza berriak ere ikusten dira.

Aurten indarra eman zaio martxoko

Emakume Langilearen egunari eta hainbat bazkidek ospatu zuten: berrogeita hamar emakume baino gehiagok. Pozik gaude.

Uztailaren 26an -Joakin eta Ana Santuen egunean-, Aitite eta Amamen Eguna ospatzea pentsatu genuen, eta jai txiki bat antolatu zen. Txokolatea eta txurroak meriendatu eta gero dantzaldia.

Osasun arloari dagokionez, podologia zerbitzua ezarri nahi dugu kontsultak egiteko, zerbitzu horren behar handia ikusten dugulako gure artean. Erizain titulatu bat ere etorriko zaigu egoitzara hilean behin, tentsioa hartzeko.

Hogei urteok ondo beteta daude, antza.

Orokorrean bai. Pasa den astean hogeigarren urteurrenako ospakizun moduan Otxarkoaga eta Txurdinagako jubilatuek egindako antzerki bat ikusi ahal izan genuen gure lokalean. Oso polita izan zen. Abesbatzak ere egon ziren jaiegun horretan. Aktoreei urteurrenako plaka bat eman genien oroigarritzat, eta pozik gaude.

Guk kultura gizartea nahi dugu, eta horren alde egiten dugu. Indarrak batu egin nahi ditugu emaitzak izateko, nahiz eta batzutan zaila izaten den. Horregatik animatzen ditugu lagun guztiak gure bazkide izan eta antolakuntzan zein egiten diren ekintzetan parte hartzeko, elkarrekin lan egiteko, guztion onurako da eta.

Homeopatia, aurkako efekturik gabeko medikuntza

Terapeutika klasikoaren edo alopatiaren parean garatu den medikuntzaren atala da homeopatia, baina XVIII. mendearen bukaera arte Hahneman mediku alemaniarrek ez zuen esperimentalki frogatu Hipokratesen hipotesia: “sustantziak gai dira beraiek sortutakoan antzeko sintomak sendatzeko”.

Homeopatia esperimentazioan oinarritzen den metodo terapeutikoa da. Adibidez, gripeak eragindako sukarra sendatzeko sukarra bera sortzen duten sustantziak erabiliko dira. Sustantziok dosi baxuetan erabiliko dira, izan ere, dosi altuak hartuz gero, toxikoak izango lirake. Beste adibide bat, erle batek ziztatu ondoren agertzen diren azkurak eta edema arrosak erre ostean ere izaten dira. Ondorioz, erredura sendatzeko erlearen pozoia erabiliko du homeopata batek.

Terapeutika klasikoak inhibizio, suntsitze eta ordezkatzeko metodoak erabiltzen ditu. Hau da, sukarra baldin badago anti-termikoak hartuko dira, parasitosi bati aurre egiteko parasitosa suntsitzen saiatuko da, eta gorputzak behar duen sustantziaren bat faltan egonik sustantzia hori emango zaio gaixoari. Terapeutika homeopatiakoak, aldiz, autodefentsak estimulatuko ditu, dosi infinitesimalak erabiliz. Honela, esan daiteke homeopatia terapeutika erre-aktiboa dela, gorputzari lagunduko baitio erre-akzionatzen.

Homeopatarekin hizketan

Mediku homeopatarekin elkarrizketa zabalagoa izaten da, medikuntza klasikoan kontutan hartuko direlako zeinu objektiboak eta subjektiboak (mina, azkura, nekea...). Homeopatiak ere horrela egiten du, baina faktoreen arabera sintoma horiek nola aldatzen diren aztertu ere egingo du. Esate baterako, buruko mina duen pertso-



na bat hobeto senti daiteke aire freskoa hartuta, baina beste pertsona bat iluntasunean egonda, zutik ala eserita, presioa aplikatzean... Horren arabera, medikamentu bat edo bestea emango zaio bakoitzari gaixotasun bera tratatzeko.

Medikamentu alopatikoak eta homeopatiakoak batera erabil daitezke, bigarrenek ez baitute aurkako efekturik. Hori dela eta, umedun dauden emakumeek edota haurrek hartu ahal izango dituzte arazorik gabe.

Testua: Goizeder Uri

Funtsezko hiru printzipiotan oinarritzen da homeopatia:

- **Antzekotasun fenomeno:** sustantzia berak gaixotasuna sortu eta sendatzeko ahalmena izango du dosiaren arabera. Horrela, bada, kafeak dosi altuetan insomnia sortu arren, kafea erabiliko da dosi baxuetan insomnia tratatzeko. Beste alde batetik, sintoma antzekoak dituzten bi gaixotasun osatzeko sustantzia berdinak erabiliko dira. Hau da, hepatitisak jota dagoen gaixoak gibela handituta izango du, eta fosforoak ere dosi altuetan gibela handitzen duenez, fosforoa erabiliko da hepatitisak sendatzeko.

- **Dosi infinitesimalak:** sustantzia hainbat aldiz diluituko da eta zenbat eta diluituagoa egon, aktibitate handiagoa izango du osatzeko. Erabiliko diren sustantziak biologiko, mineral eta begetalak izango dira.

- **Pazientearen indibidualizazioa:** Nahiz eta gaixotasun bera eduki, paziente bakoitzak dituen sentsazio eta sintoma ezberdinak hartuko dira kontuan eritasun hori sendatzeko.

Tux Paint, marraztu euskaraz

Tux Paint umeez marrazkiak egiteko programa da, eta Markinako institutuko irakasle batek euskaratu du. Tux Paint www.newbreedsoftware.com/tuxpaint/ download helbidean eskura daiteke, eta euskaraz instalatzeko hurrengo pauso hauei jarraitu behar zaie:

-Windows

Jaitsi Tux Paint Installer eta Rubber Stamps Installer atalak eta instalatu biak. Programa euskaraz agertzeko, ireki Block de notas delakoarekin Archivos de Programa/Tux Paint/tuxpaint.cfg fitxategia eta bertan lang=basque testua gehitu.

-Linux

RPM paketeak (RPM Linux Packages), programa (tuxpaint

fc1.i386-rpm) eta zigilu bilduma (tuxpaint-stamps noarch-rpm) jaitsi, eta home direktorioan sortutako karpeta berezi batean sartu. Shell-a zabaldu, su root egin eta cd egin direktorio berri horretan sartzeko. Azkenik rpm -i tuxpaint-0.9.13... eta rpm

-i tuxpaint-stamps... (fitxategiaren izen osoa idatzi behar da) aginduak eman eta prest dago.

Debian erabiltzen dutenek edo kode-iturritik zuzenean instalatu nahi dutenek ere badituzte bertan beharrezkoak diren fitxategi guztiak.

Euskaraz agertzeko:

-shell-a zabaldu eta tuxpaint --lang basque agindua eman.

-shell-a zabaldu eta tuxpaint --locale basque agindua eman.

-Zure sistemak erabiltzen duen hizkuntza lehenetsia aldatu nahi baduzu (Tux Paint ez ezik euskaratuta dauden beste programa batzuk ere agertzeko), ireki home direktorioan dagoen .profile fitxategi ezkutua eta export LANG=eu_ES@euro idatzi.



EGako azterketak sarean

Internet&Euskadi elkarteak sarean jarri ditu Euskararen Gaitasun Agiria lortzeko gainditu beharreko azterketak. Helbidea www.interneteuskadi.org/euskara/ega da. Bertan 1992tik 2004ra arte eginiko atariko probak daude, baita entzutezko ulermen maila neurtzeko ariketa batzuk ere. Atariak, gainera, erantzun zuzenak ikusteko aukera ere ematen du.

Aplikazioa XMLeta HTMLformatu irekiak erabiliz programatu dute eta edozein nabigatzailean ikus daiteke; ordenagailuan, beraz, ez da programa berezirik instalatu behar.

Elkarteak proiektua hobetzeko asmoa du, eta horretarako hainbat pauso egingo ditu, esaterako, atarian agertzen den informazioarekin CD bat osatzea, idatzizko azterketak gehitzea, eta falta diren audio-pistak bilatu eta MP3 formatura pasatzea.

Oihutegia, gazteentzako topaleku birtuala

Animatu enpresak Oihutegia euskarazko txat grafikoa egin du Interneterako. Gazteei zuzendutako topaleku birtuala da Oihutegia, eta bertan elkarrekin harremanetan jartzeko aukera izango dute internautek.

Topalekua Bilboko Plaza Barria da, eta jolasten hasi baino lehen, bere pertsonaia birtuala sortu beharko du erabiltzaileak. Pertsonaiaren izenaren eta gustuen berri emateaz gainera, hainbat ezaugarri zehaztu beharko ditu: orrazkera, aurpegia, gorputza, besoak, galtzak eta zapatak. Arropak eta orrazkerak kredituen bidez erosten dira, eta kreditu horiek gastatuz gero, gehiago lor daitezke bertan agertzen den telefonora SMS bat bidalita.

Itxura eta gustuak finkatu ondoren, jokalaria plazako hiru gune izango ditu aukeran: arkupeak, teilatua eta plazaren erdigunea. Bat aukeratuta, prest egongo da lagun berriak egiteko.

Gazteentzako topaleku birtuala www.oihutegia.com helbidean dago.

Erandioko Andra Mari eliza

Nahiko ezberdinak diren zonalde bi topatzen ditugu Erandion: alde batetik, Erandioko Landearen eta Bilboko itsasadarraren arteko industrialdea, eta bestetik, Goierri auzoa, nekazari izaerari oraindik eusten diona. Industriak eta lantegiek aurrera egin arren, antzinako baserriek, dorretzek eta basilizek zutik irauten dute Erandion: Martiartu dorrea, San Kristobal ermita, Arriagako Artetxe etxea... Hurrengo lerrootan Andra Mari eliza dugu hizpide.



Erandioko Landea elizatearen erdigunea izan zen antzina, eta bertan kokatuta dago Andra Mari eliza.

Eliza 1100. urtean eraiki zen harearriko harlanduak erabilia; XV eta XVI. mendeetan berreraiki egin zen. Estilo gotikoko elizarik adierazgarrienetako bat da. Gurutze latindarreko oinplanoa du, hiru naberekin; nabeok ojiba-arkuekin bananduta daude; gurutzadurak burualde oktogonala du, eta atari-dorrea beheko aldean. Beste alde batetik, aipagarriak dira nabeak eta ojiba erako lehiateak estaltzen dituzten gangak edo bobedak.

Kanpandorreak gotorleku itxura du. XV. mendeko lan ikusgarria da eta estilo gotikoko gailurreria erabili zen hura eraikitzeke.



Bitxikeria moduan, elizpean hilobi gotiko bat dagoela aipa daiteke. Bertan Martiartuko jaunen gorpuak dautza. Eta estilo rokokoko hiru erretaula daude elizaren barruko aldean: bat aldare nagusian eta beste biak albokoetan. Erandioko Andra Mari elizan estilo neoklasikoko beste erretaula bi ere ikus daitezke, baita taila erromaniko interesgarri batzuk ere.

Aikor! aldizkariak musika atal barria estrainatu eban aurreko zenbakian, Karidadeko Benta taldeko buruari, Jon Maiari, itaun batzuk eginez. Ez dogu uste azaldu beharko danik zertara dedikatuko dan lehiatila barria, txorien herrian txiruliruliak berbaz azaltzea trumoiaren osteko bedar buztiaren usaina PDF formatoan interneten eskegitzearen antzekoa izango litzateke eta. Dana dala, aurkezpenak egiterakoan eta alkar ezagutu arren, musikoen antzera lehenengo “pieza” jo eta gero ez da txarra hirulau esplikazio emotea, entzuleari kontzertuaren nondik norakoak azaltzeko, barriari bideak erakusteko.

Arbel honetan danerik sartuko da, bai bost lerro artean edo pentagraman

idazten direnak eta bai kaligrafia barik edo lerro barik idazten diren eskuizkribuak. Hobeto azalduz, idatziko ditugu Txorierrin egiten dan eta egingo dan edozein musika motaren gaineko informazioa edo/eta musika horren edo edozeinen gaineko analisiak, kritikak, aipamenak, kronikak, “adagioak” eta ziberpartiturak.

Eta txorierritar gehienok zalantza barik musikoak/musika zaleak zarienez, “eufonikoa” litzateke zeuen sinfoniak, sonatak kantatak eta zaratak musika atal honen bitartez amplifikatzea. Beraz, gura badozue, bialdu zeuen ekarpenak, iritxiak eta kritikak helbide elektroniko honetara: aikormusika@yahoo.es. Belarri on!

Musika, kapritxo hutsa ala zerbait gehiago

Umeen matematika ikasteko gaitasuna hobetu egiten dau

Estatu Batuetako zientzialari talde batek (Gardiner, M. et al, Nature aldizkaria) argi erakutsi dau euren ikerketa baten hezkuntza musikal eta artistiko ona hartzen dabenean umeei asko hobetu daikiela matematikarako eta irakurketarako kapazitatea. Ondorio honetara heltzeko zera egin eben: Rhode Island estatuko eskola publiko bitan, ikasketetan txarto ebilen 5-7 urte bitarteko ume talde bana hartu eben. Umeoi hezkuntza musikaleko eta artistikoko astero beste eskola ordu bat gehiago emon eutsien, eta zazpi hilabete beranduago, emoitzak neurtuz, irakurtzen

gela kideen parera heldu zirela konturatu ziran, eta ez bakarrik hori, matematika arloan kideen askoz gainetik jarri zirela.

Gardiner eta ikerlari taldearen ustez,

argi geratu da musikearen irakaskuntza ezin dala kontsideratu kapritxoa edo dirudunen aparteko luxua, hezkuntza orokorreko oinarritzko ataletariko baina.

Albert Einstein, danok ezagutzen dogun zientzialari aparta, biolin jole supergaitua be izan zan. Gardiner-en esanetan, “begi bistakoa da ez zala musikea bakarrik izan jenio izatera eroan ebana, baina, behar bada, musikearen laguntza barik ez eban lortuko lortu ebana. Eta berari lagundu eutson moduan musikeak danori lagunduko deusku”.

AGUR JAUNAK, ANDRAK AGUR

Testua eta partitura: Pospolin

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Alkatxofak pernilagaz

Osagaiak 4 lagunentzat:

- Kilo bat alkatxofa
- 75 gr pernil
- Kinpulaz bat
- Berakatz atal bi
- Tomate koilarakada bi
- Koilara txiki bete urun
- Limoi bat
- Gatza
- Oliba orioa

Prestatzeko era:

Alkatxofak garbitu eta kirtena, puntea eta orri gogorak kendu (kirtenari azala kendu eta barruko parte alkatxofakaz egosi). Limoia erdibitu, igurtzi alkatxofak banan-banan eta bota uretara palangana baten. Ipini presinozko lapikoan ura gatzagaz eta irikiten hasten danean bota alkatxofak; euki egosten bost bat minutuan. Kazuela baten ipini orioa; kinpulea eta berakatz txikitu, eta hau gorritzen danean bota urune, pernile txikituta eta tomatea. Alkatxofak kazuela honetara pasau eta egosteko erabili dogun 4 edo 5 koilarakada ur bota. Kazuelea tapau, iri-



Mari Tere Onaindia

kiten euki 5 minutuan su txikian... eta on egin!

Txibia- eta abakando-fideua

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 100 g fideo fin
- 800 g abakando
- 200 g txibia
- 100 g tipuleta samur
- 100 g tomate
- 100 g piper berde
- 20 g baratxuri
- Piper txorizero bi
- 4 dl oliba-olio birjina estra
- 6 berakatz atal
- 50 g almendra
- 50 g ogi
- Arrautza zuringo bi
- Gatza
- Piperbeltza
- Perrexila
- Estragoia

Prestatzeko era:

Gardostu abakandoa ur gazitan 3

minutuan, kendu hezurak eta gorde okela eta burua. Moztu txibia errektangelu handi bitan eta egin tailarinak. Gorde sobratzen diren zatiak.

Barazkiak zatitu, oliotan erregosi abakando eta txibiaren hondakinekin batera eta urez estali. Gatza eta piperra bota eta astiro-astiro utzi irakiten harik eta 700 cl salda lortu arte.

Gardostu 6 berakatz atalak, ura hiru aldiz aldatuz, eta egin pomada antzeko bat irabiagailuan berakatz, almendra, ogi, arrautza zuringo eta 2 dl olioarekin.

Zartaginera olio apur bat bota (5 cl) eta gorritu fideoak. Estali salda beroaz eta irakin su bizian 8 minutuan. Abakandoaren haginak eta

tailarinen erdia gehitu. Labera sartu 180 gradutan 3 minutuan (aldez aurretik berotu labea).

Erregosi abakandoaren zatiak eta txibia-tailarinak, bota fideoetara eta gehitu koilaradaka bat berakatz-pomada. Belar freskoak txikitu eta hautseztatu.



Gaminiz jatetxea Zamudion

LIBURUAK

Hortentsi baserrian
Mikela nahasturik dabil
Amets mágicos
Debi Gliori

Erraldoia eta txoriak. G. Biondi

La morica encantada. Ara-
goiko Daroka herriko legenda,
komiki eran idatzitakoa.

Zeruetako erresuma. Itxaso
Borda

Komunista.com Juan Mari Iri-
goyen

DISKOAK

Rock 'N' Roll. Markinako Ater-
kings taldearen lehenengo disko
luzea. Euskeraz gehien bat,
baina badira abestiak gazteleraz
eta ingelesez be. 15 kantu.

Minuette. Niko Etxart. Hamar
urtez diskarik argitaratu barik
egonda, diska barri bi atera dauz
epe laburrean: aurrena "Epe-
rra", eta oraingoa "Minuette".
Diska indartsau, zaindua eta
garbia lez definitua.

Pájaros en la cabeza. Amaral tal-
dearen pop diska barria. 14
abestiz osatuta eta DVD bategaz
batera argitaratzen dana.

DENBORA PASA

LETRAZOPA

B	Z	D	K	D	J	A	G	A	E	T	R	A
N	A	Z	F	B	H	L	I	N	I	L	P	E
I	B	B	M	R	A	N	G	D	O	G	B	K
F	A	O	E	T	A	S	L	M	T	E	P	Ñ
M	L	M	L	I	M	P	O	A	B	S	N	B
Ñ	O	B	J	M	G	I	K	Z	R	H	D	I
F	E	M	P	A	L	D	L	T	A	Z	G	T
L	T	D	F	M	M	G	S	I	T	B	M	F
M	X	R	O	I	E	M	F	K	F	X	A	N
G	E	G	H	T	H	J	K	Z	N	J	M	L
B	S	E	M	N	X	B	R	U	P	B	L	S
N	J	R	L	A	K	M	X	G	L	Z	D	H
H	D	G	A	S	T	O	R	E	K	A	K	A

S	R	K	B	F	E	Q	J	H	O	D	N	T
R	A	E	L	O	T	X	E	L	E	R	R	I
A	I	N	I	D	U	D	L	G	L	J	X	G
G	B	U	E	D	L	A	X	T	E	R	A	P
O	R	E	L	S	J	R	N	P	E	M	E	F
K	O	R	M	N	K	E	Z	G	D	S	L	O
L	K	H	X	R	H	G	A	B	M	A	F	K
L	A	H	T	I	O	K	A	R	P	N	Z	R
N	D	Z	G	Z	I	D	I	E	F	D	N	X
A	K	L	B	O	G	B	T	D	K	H	S	B

Aurki itzazu ondoko letrazopan **Txorierriko beste 7 auzoen izenak**. Herri bakoitzeko bana dago. Erantzuna jakin nahi baduzu hurrengo aldizkarian agertuko da.

Kontutan hartu goitik behera, behetik gora, ezker eskuin, eskuin ezker zein diagonalean aurkitu daitezkeela.



Berririko hantxakandak...



Berririko bete egingo ez duten promesak entzun behar...



SINISTU



Berririko, guztia irabazte...

Bihar, berririko, zutaz ahastuko dira...



2005ko Azarrik 15

Agenda

Antzerkia eta filmak

Sondika. *Los Increibles.* Maiatzaren 8an, 18:00etan.

Molestias clownicas, Oihulari Clown taldearen eskutik. Maiatzaren 13an, 21:00etan.

La búsqueda. Maiatzaren 15ean, 18:00etan.

Ane Monna Oskola eta Karramarroi, Zenbat taldearen eskutik. Maiatzaren 21ean, 17:00etan.

El espantatiburones. Maiatzaren 22an, 18:00etan.

Ocean's twelve. Maiatzaren 29an, 18:00etan.

Derio. *Las azarasos andanzas de dos pícaras pellejas.* Maiatzaren 7an, 19:00etan, Sutondoan elkartearen eskutik.

Zamudio. *Ezetz lepoan jarri.* Maiatzaren 4an, 20:00etan, Arriaga antzokian.

Binicle 2: La leyenda eta Collateral. Maiatzaren 8an, 17:30ean eta 19:30ean, hurrenez hurren.

La búsqueda eta Crimen ferpecto. Maiatzaren 15ean, 17:30ean eta 19:30ean, hurrenez hurren.

Balto 3: rescate del avión perdido eta Ocean's twelve. Maiatzaren 29an, 17:30ean eta 19:30ean, hurrenez hurren.

Erakusketak

Zamudio. Argazkiak, Joseba Apezetxearen eskutik. Maiatzaren 9tik 21era bitartean.

Derio. Euskal eskupilota. Maiatzaren 9tik 13ra bitartean, kultur aretoan.

Aeromodelismoaren erakustaldia. Maiatzaren 21ean, 17:00etan.

Gimnasia Erritmikoaren erakustaldia. Maiatzaren 21ean, 18:00etan, kiroldegian.

Hitzaldiak

Larrabetzu. *Sukaldaritzza begetarianoa.* Maiatzaren 24tik ekainaren 28ra bitartean, martitzenetan, 18:30etik 20:30a arte.

Irteerak

Zamudio. Herri Urratsera (Senpere). Maiatzaren 8an, 08:30ean.

Bizkargira. Maiatzaren 8an, Arroeta mendi taldeak antolatuta.

Peña Angulo-Orduñara. Maiatzaren 15ean, Arroeta mendi taldeak.

Leonera. Maiatzaren 28tik 29ra bitartean.

Ibilaldira (Durango). Maiatzaren 29an, 09:30ean.

Lezama. Txindokira. Maiatzaren 8an, Gailur mendi taldeak antolatuta.

Herri Urratsera (Senpere). Maiatzaren 8an.

Mekoletara (Otxandio). Maiatzaren 29an, Gailur mendi taldeak eta Guraso Elkartek antolatuta.

Larrabetzu. Herri Urratsera (Senpere). Maiatzaren 8an.

Kirola

Derio. Uribe Kostako Futbito Torneoaren finalak. Maiatzaren 7an, 10:00etatik 14:00ak arte, kiroldegian.

Eskupilota Eguna. Maiatzaren 18an, 17:00etatik 21:00ak arte, pilotalekuan.

Ibilaldi neurtua Herriko Plazatik. Maiatzaren 22an, 8:00etan, nagusiak, eta 9:00etan, txikiak.

Emakumeen I. Basket Tornea. Maiatzaren 28an, 09:00etatik 19:00ak arte, kiroldegian.

Areto-futbol triangularra. Maiatzaren 28an, 20:00etan, kiroldegian.

Musika

Derio. Abesbatzen kontzertua. Maiatzaren 20an, 19:30ean, Ipar-Alde abesbatzak antolatuta.

Larrabetzu. Maiatz Musikala, Musika Eskolaren eskutik. Maiatzaren 4an eta 12an, 19:30ean, kultur aretoan.

Udaberriko kontzertuak. Maiatzaren 6an, 20:15ean, Andra Mari elizan.

Txapelketak

Derio. Briska Txapelketa. Maiatzaren 10etik 12ra bitartean.

Bestelakoak

Sondika. XII. Argazki Rallyko obren erakustaldia eta sari banaketa. Maiatzaren 15ean, 11:30ean.

Derio. Ateak zabaltzeko eguna, buztin-gintza eta graffitigintza tailerretan. Ma-

iatzaren 28an, 16:00etatik 21:00ak arte.

Lezama. Aste Berdea. Maiatzaren 30etik ekainaren 2ra bitartean,



17:30etik 19:30era, ludotekan.

Larrabetzu. Holandako dantzak. Maiatzaren 13an, 18:30ean, pilotalekuan.

San Isidro. Maiatzaren 15ean, 10:00etatik 14:30era bitartean: azoka, txistulariak, trikitilariak, bazkaria...

Haurrentzako parkea: herri kirolak eta jolasak. Maiatzaren 22an, 17:30etik 20:30era bitartean, plazan.

Pisa la Raya antzezlanaren ikusteko sarre-rak salgai maiatzaren 23tik aurrera.